

PLaza

» **44 ■ Balentziaga museoko lanak, geldi**
Hamar milioi euro gehiago gastatu nahi ditu Eusko Jaurlaritzak Balentziaga museoa proiektuan.

«Nire izpiritu intimoa munduan barna ibiltzen uzten dut liburuan»

ITXARO BORDA Idazlea

‘Noiztenka’ poesia bilduma plazaratu berri du Itxaro Bordak, Maiatz argitaletxean. Biziaz eta munduaz duen ideia koplaren kaiolan sarturik, bakardadeak inguratutik.

XAN AIRE

Baiona

Goizeko epeltasunean, eskularruekin agertu da Itxaro Borda (Baiona, 1959), Baiona Ttipiko San Andres plazan. Irribarretsu, hitzordua ez zuela ahanzia azpimarratuz. *Noiztenka* bere zortzigarren olerki bildumaren plazaratzeko, Maiatz argitaletxea hautatu du, «usaia dudalakoan, abentura horretan partaidea naizelakoan, al-dizkatzeko». Ilunak izateko fama dute Bordaren olerkiek. Badirudi aldatetaren liburua dela *Noiztenka*, sentsuala eta bakardadea josirik.


Arazo bat dut. Noiztenka irakurri ondoren, ez zaitut batere ezagutzen, baina liburua erotik intimoa dela iduritzen zait. Intimoa da, bai. Nire olerki gehienak bezala. Beharbada, ez nauzu ezagutzen, liburu honetako olerki gehienak iluminatuak baitira, eta aitzinakoak ilunago baitziren. Hori izango da...

Nondik dator ba aldaketa hori?

Gehienbat Baionara etorritik sentitzen dut aldaketa. Eta ene *militantismoaren* mundutik, edo gauek ateratzearen ondorio ere bai. Iduritzen zait, Maulen nintzeanean, ikastolako arduradun eta horrelako gauzetan, beti gauez bizitzen nintzela, ilunpean —ilunpe egiazkoan eta metaforikoan— eta hona etorritik geroztik alderantzizkoa dela. Ez naiz sekula hain lasai eta sakon sentitu bizi izan naizen hainbeste lekuetan. Nahiz eta hain fribolo eta deabre aire bat dudan, aldaketa hori sentitzen dut. Aldaketa horrek baditu ondorioak izkiriatzeko maneran, eta bizitzaren aipatzeko maneran.

Noiztenka bilduman, 2000. urteko olerkiak daude, eta aurtengoak ere bai. Aipatzen duzun aldaketa hori sentitzen da zazpi urtez zure olerkietan?

2000. urtekoetan, gehiago zen aldatetaren aitzineko harridura bat, eta zazpi urte berantago —eta eus-



GAIZKA IRIJAZ

kaldunek maite dugu zazpi zenbaki hori—kanbiamentu horren aurka egiteko partez, alde egiten dut. Hortik abiatzen naiz idazteko. Eta liburu honetan egia da bide hori agertzen dela. Bide intimoa da, baina ez da bakarrik gela bakar batean zerraturik gertatu den aldaketa. Munduari kantu bat da ere. Eta agertzen dira Europako leku batzuk, Euskal Herriko anitz...

Zergatik leku horiek?

Lekuak izugarri maite ditut. Ingerumenak... jendeak... emazteak. Eta horietaz oroitzeko molde bat idaztea da. Alde horretatik, idazle

«Poesia nire amodiozko historien pare da. Su handi bat, erretzen zaitu, eta gelditzen den ikatza da»

arkaikoa naiz. Ez dut idazten niretzat bakarrik, baina oroitzeko. Herriko zaharrek horrela egiten zuten, eta nik ere bai!

Jendeak maite dituzula azpimarratu duzu... Baina bakardadea sentitzen da liburu honetan...

Hori hor da beti. Eta hein horretan da gertatzen aldaketa. Preseski, hainbat urtez, aitzineko liburuetan, bakartasuna gaitz edo min bat

dela ikusten ahal den bezala, liburu honetan opari bat bezala da. Hori da funtsezko aldaketa.

Zer, azkenean Itxaro Borda optimista da? Betidanik optimista izan naiz! Ez du iduri, baina betidanik. Ez da optimismo soila, argitasun zerbait da munduaren eta ingurumenaren ikusteko moldean.

Noiztenka liburuan biluzten zarela erran daiteke?

Bai... Baina liburu guztietan bezala. Biluzi baino gehiago, nire izpiritu intimoa munduan barna ibiltzen uzten dut hemen. Ez dut aipatzen goizetan umore txarrarekin esnatzen naizela. Aipatzen dut, baina ikusmolde baikor batekin. Euskal politikaz, euskaldun izateari, bozkarioari himno bat bezala egiten dut *Euskadi Morning Kalka* olerkian. Beti negarrez ari gara... Xalbadorrek kantatzen zuen bezala, frantses edo espainol sortu banintz hobe. Erran horren funtsa arintzeko edo idatzi dut olerki hori. Euskaldunak sortu gara, plazer har dezagun euskaldun izanez, ditugun arazoekin. Hor ere ez nuke horrela aritu behar. Serioski behar da hartu euskal politika, ez friboloki. Baina, hala ere, nire proposamena da, liburu honetan bederen.

Asumitzez ari baitzara, zure sexualitatearen printzak agerrarazten dituzu hemen...

Beti agertu da nire liburuetan. Beti hitz gordeka, poetikoki. Baina horrek behar du poesiaren sekretua gelditu. Baina egia da hemen argiagoa dela. Nire lan guztiak zeharkatu dituen homosexualitatearen aipamen hori inportantea da, biziaren ikusteko molde bat baita. Baina ez da horretan gelditu behar. Poesia nire amodiozko istorioen pare da. Su handi bat, erretzen zaitu, eta gelditzen den ikatza poesia da. Edo zubi baten gainetik soka batekin jauzi egitea bezala da olerkia.

Edo orgasmo bat bezala?

Baliteke... Orgasmo ebaki bat.

Azkenean, lehenago aipatutako aldaketa baztertuz, zer da Noiztenka?

Biziaren eta munduaren ikusmolde laztan suhar bat. Ez da liburu kontzeptu bat. Eta gero, beste etapa bat da, liburu bakoitza den bezala. Etapa bat da munduari buruz dudak gogoetan, nire ezagutzen edo ezagutzen prozesu horretan ere, beharbada. Etapa bat ere irakurleei egin emaitza, edo «oparia», bide horretan.

Bide argi horretatik segituko duzu?

Beharbada, bai. Egunerokoak erranen du, aitzinetik zaila baita erratea. Baina bide hori ongi doakidala sentitzen dut. Gauzak erran diren bezala, bortxatu gabe, ez baitetzpada probokatuz, edo etsirik bilatu gabe. Niri hori gustatzen zait. Baina bide bakartia da.